



Eskualdeko beteranoak, munduko atleta onenekin

ORDEZKARIAK ▶ Tolosaldeko atleta askok eta zazpi epailek hartu dute parte Munduko Txapelketan

DOMINA ▶ Armando Rocak brontzezko domina jantzi du; 25 urterekin zuen «ilusio bera» du ▶ 4-5

TOLOSA ▶

Lana eta formazioa eskualdeko langabetuei

Tolosaldea Garatzen eta INEM-ekin ▶ 2

Pilatutako ajeari aurre egiteko, jai egitarau zabala dago aukeran

TOLOSALDEA ▶ Festa giroak ez du etenik Alkizan, Bedaion eta Zizurkilen; atzo bezala, gaur ere ez da aspertzeko astirik izango ▶ 3



Arrospide. IMANOL OTEGI / A. PRESS

LEABURU ▶

Anjel Arrospide, Txapeldunen Ligako finalean

Oraindik sailkapen saio bat jokatu behar duen arren, postua ziurtatuta du ▶ 6

J. GOIKOETXEA



ARMA eta GIDA



baimenak

- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena



R.P.S 401/04

'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA

15:30etik 19:00etara

ENPLEGUA ▶

Lanerako aukerak Tolosaldean dauden langabetuentzat

Tolosaldea Garatzen-en eta INEM-en proiektuak eskualdeko 22 langabeturi lana eta formazioa eskaintzea du xede



Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak Tolosako San Esteban auzoan duen egoitza. HITZA

NEREA LIZARTZA

Eskualdeko INEM-ek eta Tolosaldea Garatzen-ek elkarlanean aurkeztu duten kanpainak hogeita bi langabetuentzat enplegu lantegiak jartzea du xede. Zehazki, eraikuntza edo zaharrei zuzendutako osasun-laguntza aritzea dira eskaintzen dituzten lanpostuak.

Kanpainaren sustatzaileek adierazi dute eraikuntzaren

kasuan, programa honetarako materialik, teknikarik eta metodorik berrienak erabiliko dituztela. Horrela, ahalik eta baldintza egokienetan lan egiteaz gain, formaziorik onena eskaintzen saiatuko direla ere gaineratu dute. Sektore honetarako eskaintzen diren lanpostu guztiak Tolosalderako dira.

Zaharrentzako osasun-laguntzarako kanpaina abian

jartzerakoan, berriz, merkatuko beharrez gain, zahar ugari bizi duten egoera kontuan izan dutela adierazi dute proiektuaren eragileek. Praktika hauek Tolosaldean eta Donostialdean dauden hirugarren adinekoen zentroetan egingo dira.

Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak eta INEM-ek lan hauetan eskarmenturik ez dutenei ere zuzenduko nahi diete programa. Beraz,

ikastaro hauen bitartez izena ematen dutenen jakinduria eta esperientzia baloratzeaz gain, euren profesionaltasuna bermatuko duen diploma ere emango diete.

Izen-ematea eta baldintzak

Izena emateko baldintzak bi dira: alde batetik, hogeita bost urtetik gora izatea; eta, bestetik, langabezian egotea. Bestalde, izena ematen dutenen artean kontratatzen dituzten hogeita bi pertsona horiek urtebetez lanean aritzeko kontratua izango dute.

Izen-emate epea eta lekua oraindik zehaztu ez badituzte ere, gaiaren gainean interesa dutenentzat datorren astearterako, hilak 13a, informazio saioak antolatu dituzte Tolosaldeko Musika Eskolan. Eraikuntzaren arloan eskaintzen diren lanpostuetarako informazioa nahi dutenentzat hitzordua 10:30ean izango da. Zaharrentzako osasun-laguntzaren gaineko informazioa jaso nahi dutenentzat, berriz, 09:00etan.

Proiektuaren beharra

Proiektu hau lan mundura begira dauden beharrei eta eskualdean dagoen langabeziari aurre egiteko aurkeztu dute, besteak beste. Izan ere, Tolosaldea Garatzen garapen agentziak egin duen azterketa baten emaitza da. Azterketa horren arabera, eraikuntzako lana eta osasun-laguntzaile lana lan merkatuan egonkorituak dauden eta gizartearen gutiz beharrezkoak diren sektore ekonomikoak dira.

Eskualdean enplegua eskuratzeko erregistratuta dauden tasei erreparatu gero, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) ekainean argitaratu eman zituen datuen arabera, Tolosaldean hogeita bost urtetik gorako 1.364 pertsona daude langabezian; horietatik 882 emakumeak dira eta 482, berriz, gizonak. Beraz, aurkeztu berri den kanpainaren bitartez, tasa hauei irtenbidea ematen saiatuko dira, besteak beste.

ERLIJOA ▶

Santa Mariako kapera Izaskunen ariko da bihar

Izaskungo Ama Birjinaren eguna dela eta, bihar, 11:00etan, Santa Mariako kaperak emanaldia eskainiko du Izaskungo ermitan. Kaperakoek abesbatzako eta orkestrako partaideei zein herritarrei bertaratzeko gonbita egin nahi diete.

MENDIA ▶

Alpino Uzturrek irteera antolatu du Nafarroara

Hilaren 18rako, Ibañeta-Luzaidera irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarrekin. Sei orduko ibilaldia egingo dute, Laurinaga (1.278 metro) eta Argarai (1.126 metro) mendiak igoz, besteak beste. Irteera 07:00etan da, Pablo Gorosabeletik. Txartelak elkartearen egoitzan daude salgai dagoeneko, 10 euroren truke bazkideentzat; gainontzekoentzat, berriz, 12 euroren truke. Informazio gehiago nahi duenak www.alpinouzturre.com web orria kontsulta dezake edo bestela, elkarteak Tolosan duen egoitzara ere joan daiteke (Gudari, 5).

EUSKARA ▶

Aitzol udal euskalgegian matrikula zabalik

Hilaren 20a bitartean zabalik da Aitzol udal euskalgegi matrikula epea ikasle ohi zein berrientzat. Izena emateko ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara da. Zenbait taldeetan ikasle kopurua mugatua denez, matrikula garaiz egitea komeni da.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.

Salgai (Tolosa). Pisua Belate Ibiltokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan. 42.000.000 pta

Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibiltokian

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, B. Zatikibia kalean.

Alokatzeko (Ibarra). Garajea Euskal Herria kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Zakurra. Lehengo igandean ardi zakurra azaldu zen Oresako Basabe errekararen ondoan. Ile zurikoa. Galdutuenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 68 22 14.

LANA

Eskaintza. Informaerak dituen eskarmentu handiko 34 urteko emakumea eskaintzen da ebeko

lanak egin eta haurrak zaintzeko.

Deitu 686 66 82 91 telefono zenbakira.

Muntatzailea. Arotzeria metalikoko muntatzaile batek ikastuna behar du. Deitu 665 70 09 79 telefono zenbakira.

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesa duenak dei dezala honako telefono zenbakira: 943 69 19 33.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webguneak atal berria du, *Zeuk idatzi* izenokoa. Eskualdeari buruzko albisteak idatz dezakezu bertan. Anima zaitze! Hiru dituzu orain irakurgai: Liburutegia Guatemalan, Tolosa autobusa eta Arrospeide finalera.

JAIK ▶



Zizurkil. Asto karreraren parte hartu zuen taldeetako bat. J. GOIKOETXEA



Bedaion. Dantzarien emanaldiko une bat. J. GOIKOETXEA



Alkiza. Pitxoi tiraketako parte-hartzaile bat tiroa botatzen. J. GOIKOETXEA

Festarik festa ibiltzeko aukera asteburuan

Festetako egun handia izan zuten atzo Zizurkilen; asteburu luzearen bigarren egunean ez da aspertzeko astirik izango

JULEN GOIKOETXEA

Jaietan murgildurik jarraitzen dute eskualdeko hainbat herri. Atzo, esaterako, egun handia izan zuten Zizurkilen. Izan ere, Arantzazuko Amaren eguna ospatu zuten, eta data berezi horrek eskatzen zuen mailako egitaraua antolatu zuten. Hasteko, goizean meza nagusia izan zen, eta ondoren Urka-

mendi elkarteak sardinak eskaini zituen hainbat sagardotegitako sagardoaz lagundurik. Jarraian, tokan eta igelaren jokoan aritu ziren adinekoak arratsaldeko ordubiak arte, ordu horretarako baitzegoen iragarrita haientzat antolatutako bazkaria. Arratsaldean asto karrera izan zen ikusgai. Bitxikeria gisa, esan behar da mozerro onenak saria izan zuela.

Ondoren, erromeria izan zen herriko eta Villabonako dantza taldeekin, eta giro horretan iluntzean egin zen afariaren ostean berriro dantzariak izan ziren ikusgai. Gauda alaitzeko Tapia eta Leturia igo ziren taula gainera.

Alkizan ere, meza nagusiak eman zion hasiera egunari, eta jarraian beteranoren arteko pilot finalak izan ziren. Arratsal-

dean pitxoi tiraketa herrikoia izan zen alde batetik, Erniope elkarteak antolaturik. Bestetik, Gorriti eta bere animaliak izan ziren ikusgai, herritarren arteko toka txapelketaren aurretik. Iluntzean, herri afaria egun zuten Ostatu jatetxean eta, egunari amaiera borobila emateko, Etxabe anaiekin dantzaldia izan zen.

Bedaion ere izan zen atzo festarako aitzakia. Arratsaldean Arkaitz dantza taldeak eskaini zuen emanaldiak eman zion egunari hasiera. Iluntzean, zahagiardoa egin zuten eta, indarrak hartu ondoren, toka txapelketa jokatu zuten. Artean nekerik ez zuenak, Epelde eta Larrañaga trikitilariekin izan zuten gorputza dantzan jartzeko aukera ederra.

EGITARAU ▶

Askorentzat asteburuaren bigarren eguna da gaurkoa, nahiz eta larunbata izan. Atzoko egunak utzitako ajeari aurre egiteko, egitarau benetan interesgarriak antolatu dituzte Zizurkilen, Alkizan eta Bedaion. Jaien azken txanpa gerturatzen ari den honetan, herritarren festa gogoak tinko dirau oraindik, eta azken egunak ahalik eta ondoen igarotzen saiatuko direla ez dago zalantzan jartzetik. Bakoitzak aukera dezala gustukoen duena.

ZIZURKIL

Gaur, larunbata.

- 11:00.** Buruhandiak.
- 11:30.** Lore lehiaketa Joxe Arregi plazan. 11:15erako eraman beharko dira lehiaketan parte hartuko duten loreak Joxe Arregi plazara.
- 12:00.** Halterofilia erakusketa Joxe Arregi plazan.
- 14:00.** Herri bazkaria.
- 17:00.** Blusen arteko Pentatloia.
- 19:30.** Ardi txakurren erakusketa Iturralde baserri inguruan.
- 23:30.** Mozorro Gauda: DSO kale antzerkia, Markeliñe taldearen eskutik, Ubare Auzoko 1-5 bitarteko aparkalekuan.
- Ondoren.** Disko Top Joxe Arregi plazan.

ALKIZA

Gaur, larunbata.

- 10:30.** Herriko umeentzako bixirindulari lasterketa eta toka txapelketa.
- 18:00.** Herri kirol saioa herriko gazteen artean, Ion Zabala zenaren oromenez. Ondoren, sagardo dastaketa denentzat.
- 23:00.** Herri kirol saioa aizkolariekin eta harrijasotzaileekin. Gero, kontzertua K.S., Kauta eta Mendeku Itsua taldeekin.

BEDAION

Gaur, larunbata.

- 17:00.** Ume jolasak.
- 21:00.** Herri afaria.
- Ondoren.** Elustondo anai-arreben eskutik dantzaldia goizalderarte.

iragarki laburrak ▶

Correos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonon.

Suhitzaileak. Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi

lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Haur eskola publikoak. Haur

zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

Laborategiak. Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak,

Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udalenterako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

ATLETISMOA >

Adinean aurrera... korrika

Eskualdeko atleta asko izan dira Donostian jokatu berri den betaranoen mailako Munduko Atletismo Txapelketan; Armando Rocak brontzezko domina lortu du

JOXEMI SAIZAR

Kirol sakrifrikatua da atletismoa: bakarriz entrenatu behar, bakarriz konpetitu behar, egun txarra izan ez gero ez dagu taldearekin babesik... Eta gazte izanik, hala ere... Baina batzuk, adinean aurrera doazela ere, sasotan daude —edo sasota hori lortzeak— eta atletismoa egiten dute.

6.000 partaide izan dira Donostian bildako berri diren betarano mailako Munduko Atletismo Txapelketan. Espainiako 1.390, Frantziako 482, Erresuma Batuak 461, AEBetako 296... Probak Anoeta eta Eskualdeko estadioan eta ondo ministroadietan eta Hernanin izan dira, eta antolatzailek Udala, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, Munduko Federazioa, eta haren delegazioak, Espainiako, Euskadiakoaren eta Gipuzkoako kouran laguntza. Antolatzaile gaste eta heldu bolaratzaile bako hartu dute parte: laguntzaile gisa, otordutarak, aldaketarik bistara eramateko...



Txapelketako inaugurazio ekitaldian, euskal atletak Espainiako atletak. ANDON ORRELAIZA/ANDON PRESS

Adiskidetasun giroa izan da atleten artean. Lasterketa bukarretan oihoko zen denak agurtzea, besarkatzea eta eskotan epaileekin argazkia aterzea. Olimpiar Ipirimian erakutsi dute atleta betaranoek.

Domina bakarra

Tolosaldeak ere izan du bere presentzia txapelketa hauetan. Aride batetik inaugurazio ekitaldian erabili zen zuzi edo lastergia Tolosan Eskolarteko Olimpiar Jokotan erabiltzen dutena izan zen, Felipe Garcesek utzia. Bestalde, Mexikoko 30 atleta Zuloaga txiki atzerpean izan dira egun hauetan. Eta partaidetza aditxek ere, eskualdeko atleta ugari izan da.

Emaztezi begiratuz, Armando Rocak izan da domina lortu duen eskualdeko bakarra, brontzezkoa 100 metrotan. Maratoian izan da eskualdeko partaidetza handiena. 4. postua lortu dute Luis Mari Urizar bildanboratarrak eta Isabel Dumalik —Jacacoa, Asteasuaz bizi da— eta Maria Fernanda Olarra 5. izan da. Txiki Plazas eta Itzi Martinez de Antoñano tolosarrak eta Xabier Mujika —andoandarra, Asteasuaz bizi

EMAITZAK >

Hauk dira eskualdeko atletek lortu dituzten emaitzak.

- Armando Roca (M70)**, 100 m-13.46 (brontzezko domina); 200 m-28.34.
- Isabel Dumal (F35)**, Maratoia-3:17:53 (4.a).
- Luis Mari Urizar (M35)**, Maratoia-2:49:55 (4.a).
- Maria Fernanda Olarra (F55)**, Maratoia-3:52:50 (5.a).
- Juan Mari Garin (M45)**, Kross 8 km-27:12 (6.a).
- Txiki Plazas (M40)**, Maratoia-2:59:12 (40.a).
- Itzi Martinez de Antoñano (M40)**, 3:22:05 (45.a).
- Xabier Mujika (M40)**, Maratoia-4:05:49 (77.a).
- Josebe Ezkero (M45)**, 100m-12:56 (28.a); 200m-26:76 (33.a).
- Juan Carlos Etxebarria (M50)**, 400m-1:01:82.
- Jose Antonio Sobrinho (M40)**, Xabalina-36:33 (15.a).
- Jose Luis Gonzalez (M40)**, Xabalina-32:54m; disko-31:80m (13.a).

da —ere izan ziren. Patri Arnae eta Roberto Lopez tolosarrak (M55) erretiratut egon ziren 50 kilometroan. Krossean Juan Mari Garin 6. izan da.

eta nahiko gertu gelditu zen, asako arimtu gabe. Ordu arte bi maratoki zihen eginda, Parisen 2.59 eta Aspaldi Donostian 3.15, baina orain uru emen ditut eta txikiaren 10 hila bete ditut, eromena izan da. Entrenatzen jarraituko eta Behitxuan Donostian ateratzeko animatuta agertu da.

Garrantzia kenduz

Txiki Plazas ez zen gustura gelditu. Hitzartu ondoren, idazlarerarekin gertatu zen. 2.48 inguruan egitea espero nuen, gainera konpetizioan hobien egiten dut normallean; hasieran ondo joan nintzen, denbora horretan sartzeak moduan, baina azken zortzi kilometroetan oso gaizki pasatu nuen, *maliarekin* eman zitidan, baina luertze gaita, hala ere hitru orduak jaitzea lortu nuen, orain arte beti lortu dut 2.31 da nire markarik onena, baina urteak nabari dira... Lehen Munduko Txapelketa izan da harentzat ohemzelako, etxean lo eginda eta beste bazukoan parte hartzeko aukera eman, ez betrikoen bitartean kontra» eta «New York, Berlin eta Londreseko maratoiak bezala, azkenean negoziatu bat dela dio. Ez dicit garrantzi handirik ematen: Aspaldiak 2.39 eginez irabazi munduko txapeladuna ez nintzateke sentituko», dio Plazasek.

Josebe Ezkerro guttura dago 200 metroko bere marka hobetu duela, «24 urte ezezt egun gabe esan ondoren berriro hasi eta bi urte damantzen...». Esperientzia polita izan omen da, harrera ona, lagunak egon, helduleku trukatuta. Euskadi Txapelketa irabazi hartu zuten parte horrelako txapelketa hauetan. Pondoko eskian urte askotan izan da gogoi maila. Etxetik gertu zelako antzerki nuen eta «oso gustura» bukatu zuten, «nahiz eta maratoian egnaraldi txarra izan denontzat». 3.15 egun nahi zuten



JOXEMI SAIZAR

Eskualdeko epailek bertan

Carlos Lumberas epaile nagusi gisa aritu da; esperientzia handia dauka; txapelketako adiskide giroa azpimarratzen du

J. SAIZAR

Aletxek ez dira eskualdeko ordezkari bakarrak Donostian jokatu berri diren Munduko Txapelketan. Guztira 120 epaile izan dira bertan, gehiarik euskaldunak, eta horien artean Berazubiren diren zappi lagun izan dira munduko mailako proba hauek neurriten. Anton Inaz, Miguel Angel Arbeloa, Carlos Lumberas, Patxi Lopez, Joseba Erand, Jose Luis Garcia eta Juanjo Alerza.

Carlos Lumberas epaile nagusi gisa —*just aritriro* ditzen dione— aritu da. Jazki, jaurtiketa edo lasterketetan zuzenaz neurriten aritu beharrean, gainbegiraturtz aritu da eta errekiamenok artzertzen eta hortien gainean erabakitzen. Gero apelazio epaiahairu jontzei aukera ere badute aletxek. «Errekiamenok atzeratzen dira, baina ez gehiegi. Adibidez, kroasak Espainiak ez zuten taldekoa irabazi ledeleko baten ez zeramalako seleziozko ka-

sarteko eta Elgoibarko kroastan, Behobia-Donostia proba herrikoian... denetan aritzen gara. Normalen, denboraldian, azarotik aurrera, larunbatero pista estalki probak eta gandero kroas bat izaten dugu». Epalileen erleberioa «ziurtagarria» dagoela dio, gazte asko arti delako horretan ikasten, nahiz eta kokatu gabe aritu —bidaiak bakarriz: Munduko Txapelketan zerbatit jasotzen dute—. Beste federazioetan kokatzen omen dute.

«Txapelketa honetan laguntzuna azpimarratzen du epaile tolosarrak: «Asko esker dute zure lana eta antolatzea zozentzeko esan zidan frantziar batek. Fisikoki batzuk orantxi oso ondo daude, 98 urteko estabatur batek 2.000 metroko orotopok ikutu gabe pasatzen zituen, adibidez. Beste batzuk, berriz, eskuakin lagundu behar zuten. Giro ona sortu da, batze ere mi- niestadion, jende gutxiarekin bete egiten zelako».

ARMANDO ROCA • DOMINA LORTU DUEN ATLETA

«Errekupeazioa ez da 25 urterekin bezala izaten, baina ilusioa bai»

J. Saizar • Eskualdeko ordezkari onena txapelketa hauetan Armando Roca izan da, bere 71 urterekin. Balague-en (Lleidá, Herrialde Katalanak) jaioa, aspaldi bizi da Tolosan eta Tolosa CFren koloreak defendatzen ditu.

Zein balantzea egiten duzu? Antolaketak aldetik arrotziatuta handia izan da, 90 herrialdek 6.000 atleta izan gara parte-hartzaile epaile eta laguntzailekin 10.000 lagun guztira. Kanpoik etorri den jendea oso gustura joan da izandakoa berrirarekin, antolatzailek eta Donostiarekin, noski. Ordezkari eta probak errespetatu egiten dira, nahiz eta oso zaila izan, maila debarberrin asko izaten direlako horrelako txapelketak.

Nola aukeratu zuten Donostia? Olimpiar joko txiki munduko Txapelketa hauek. Instalaturak

itziak, hotelak, epaileak, antolaketak... dena begiratu izan dute. Duela hitu urte erabaki zuten munduko federazioak Donostian egitea, Helsinki eta Sacramentoekin lehiatzen.

Zein izan da zure parte-hartzearen balantzea? Oso gustura gelditu naiz, nahiz eta izan dudana lehiatze ordez errekupeatu. Ez da aitzakia, 100 metroko proban 3. izan naiz, brontzezko domina, 200 metroan 6.a eta 4x100 metroan 4.a. Kalitate handia izan da, 100 metroan alemaniar batek eta australian batek —orain arte erezeaguna— marka hobeak zituzten artean, baina 2. izan behar du. Alemaniar orain arteko lau adieratzen irabazi egon niren, baina orainoan berak irabazi du, Espainiako nire marka hobetu dut gurea, 13.46an urtez. 200 metroan ez nuen espero finantsean sartzerik, baina lortu nuen nire denborari esker eta

ez nintzen azkena izan. Errekupeazioa gure mailan azkenean ez gertatzen, osoa ez da baizetzatzen, nahiz eta entrenamenduak. Adin hauetan ez dakizu noia egongo zarene probaren egunetan eta proba batetik besterako errekupeazioa ere ez da 25 urterekin bezala izaten, baina ilusioa bai, eta agian handiagoa.

Laguntzarik izan al duzu? Cesar nire semeak entrenamendu nazi. Eta proben egunetan sentitarako eta lagun asko izan ditut. Anoetan. Animoa asko jaso ditut. Aterriko atleta lagun batek eta denak nire lagunak ziren galduta zidan.

Zer moduzko harremana izaten duzue atleta betaranoen artean? Oso ona. Laguntzua giroan aritzen gara. Txapelketak bidaiak egiteko aprobetxatzen ditugu, emaztekin eta lagun-ekin.



Anoeta estadioan, beroketa arriekin egiten. BAKEL OLIVEA/ANDON PRESS

nekain. Aspaldiak lehiakidea dituzdan lagun italiar eta alemaniar batzuk gure etxean izan ditugu egun hauetan. Lagun italiar batek bere bilduari eskainitako poema liburuari oparitu zidan. Sekulako ilusioa egiten zidan. Txapelketako izarra izan den italiarrak —100, 200, 400, 4x100 eta 4x400 irabazi ditu M40 mailan— nire adinean ni bezala egitea nahiago lukeela esan zidan. Hunkatu egon nintzen. Errespetu eta mailatan handia dago gure artean.

Eta surrero begira, zer? Martxoan Europako Txapelketa pista estalian daukagu Linzen (Austria). Alemaniarri irabazi nahit duet. Eta beremndik bi urtera Munduko Txapelketa izango da Riccione-n (Italia). Ondo baldin bagueada joango gara. Aurretik Espainiak eta Euskadiak txapelketa izango ditugu.

Noiz arte? Non dago musa? Konpetizioa urtik egiten behar den arin eta egorra fisiko bat iristen da. Hortik aurrera etakuskatuta probak jarriko nituzke, baina ez konpetizioa. ♦

AURRERA

Español

ZIZURKILGO JAIEAN ERE ZUEN ARTEAN! ONDO PASA JIAK!

ERNOIBOEA7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57

taberna

Tel.: 943 69 37 20 • ZIZURKIL

muxikil

Tel.: 943 69 44 90

Erriboea 5 • Zizurkil

Erriboea, 5 • Zizurkil

Jose Arregi plaza • Zizurkil Tel.: 943 69 34 23

Teodosio taberna

LEABURU ▶ AIZKORA

Anjel Arrospide Txapeldunen Ligako finalera igaro da

Saio baten faltan txartela ziurtatuta du; azken sailkapen saioa bihar dute, Leioan

ERREDAKZIOA

Asteazkenez Ordizian jokatu zen Aizkolarien Txapeldunen Ligako sailkapen saioan, Anjel Arrospidek finalerako txartela ziurtatu zuen, eguneko lan guztietan, batean izan ezik, irabaztun atera eta punturik gehien eskuratu ondoren. Merzitako pasea leaburuarrarentzat, zalantzarik gabe.

Sei froga egin behar izan zituzten txartel bila joanak ziren hiru aizkolariek, hots, Arrospidek berak, Larretxeak eta Pe-

ñagarikanok: 45 ontzakoak zutik ebakitzea, beste 45 ontzako bat etzanda, baina ahalik eta kolpe gutxienez, eta beste hirugarren bat, ahalik eta azkarren. Azken hauxe izan zen Arrospidek saioan galdu zuen froga bakarra. Hiru froga hauek bakarka egin beharrekoak izan zituzten. Hurrena, binaka, denak denen aurka aritu ziren, kana erdiko enborra zeinek azkarrago ebaki. Eta handik aurrera, hirurak elkarrekin, aurrena 60 ontzakoak zeinek azkarrago ebaki, eta gero bina kana



Anjel Arrospide. I. OTEGI / A. PRESS

erdiko eta beste bina 60 ontzakoekin, leiha. Guztira, Arrospidek 14 puntu eskuratu zituen, Larretxeak 6 eta Peñagarikanok 4. Horrela, Nazabalekin batera, Arrospide bera eta Larretxea ere finalean dira.

Hori bai, Arrospideri oraindik biharko Leioako saioa gelditzen zaio jokatzeko, Olasagastirekin eta Mindegiarekin egin beharko duena; baina txartela eskuan duela joaki, biharkoan finaleko 4. txartela lortzeko borroka beste bien artean egonen da.

TOLOSA ▶

'Kalea bizi' da Eskola Agendaren aurtengo leloa

Ikasturteari ekin dio jada eta mugikortasun eramangarria landuz hasiko dira laster

J. ASTIBIA

Tolosako Eskola Agendak hasiera eman dio ikasturte berriari, Zuloaga Txiki Ingu-rumen Eskolaren gidaritza-pean, herriko ikastetxe guz-tiek parte hartuz.

Kalea Bizi leloaren inguru-an joanen da beren aurtengo jarduera. Zentzu horretan, mugikortasun jasangarriaren gaiari helduko diote laster, hilaren 22aren bueltan, *Nire kotxerik gabeko eguna* eta Mugikortasun Astea antolatuz, «modu eraginkorrean» hartuko ere. «Zer aldarrikatua badugu», diote.

ARESO ▶ HEZKUNTZA



Bost ikasle gehiagorekin ekin diote ikasturteari Aresoko eskolan

J. Astibia ▶ Atzo hasi ziren eskolak Areson. 10:00etarako puntual, hantxe ziren ikasle gehienak, ttikienak, amak ondoan zituztela; gehienak diogu, batzuk oraindik oporretan omen ziren eta. Hala ere, 2005-2006 ikasturte honetan, 22 ikasle ariko dira eskolan, «iazkoan baino bost gehiago», nabarmendu zuten: «3 urteko bost haur berri hasiko dira aurten. Oso garrantzitsua da gurea be-

zalako eskola-txiki batentzat». Hauekin batera 5 urteko beste birekin Haur Hezkuntzako gela osatu dute; 1. tik 3. maila artekoekin beste gela bat; eta hirugarren gela 4., 5. eta 6. mailakoekin. Orotara, 2 irakasle, lanordu erdiekin beste bat eta zaintzaile bat ariko dira bertan lanean, espezialista eta laguntza eskaintzen dutenez gain, hauek Leitzakoekin partekatua. JAIONE ASTIBIA

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxis: 670420
 - ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

IBARRA ▶ INGURUMENA

Astaputz erraldoia bilatu eta bildu dute Baraibar aldean

Metro bat eta bederatzit zentimetroko buelta; 26,5 zentimetroko diametroa; 19,5 zentimetroko altuera; horietatik asteazkenean ibartar batek etxera ekarri zuen 2 kilo eta 635 gramoko pisua egin zuen astaputzaren neurriak. Ez esan ikusgarriak ez direnik! Aurkikuntza, Aralarren, Baraibartik Guardetxe bidean zihola egin zuen ibartarrak, perretxikutara joaki eta astaputz ikaragarri hau topatu, hara! Ontzen denean, barrenak hauts bihurtu eta esporak lehertuz barreiatzen dituen arren, freskotan jateko baliagarria da. Biltzaileak, ordea, ez du jateko asmorik: «Denda bat dut eta hantxe jarriko dugu erakusgarritarako», adierazi zion HITZARI.



Litro eta erdiko ur botila ez al da tiki gelditzen astaputz honen ondoan? JULEN GOIKOETXEA

ALEGIA ▶ MENDIA

Zumaia eta Deba artean, ibilian

Alegiako Mendi Asanbladak, urte guztiko ibilaldien egitarauari jarraiki, iraileko mendi irteera igande honetan du egitekoa. Oraingoan, Zumaia eta Deba arteko ibilaldia antolatuta dute, itsasertzetik, alde batetik larreak eta beste aldetik itsasoa aurrez-aurre direla, paraje eder askotan barrena ibiltzeko aukera eskainiz. Igande goizean, Alegiatik bertatik aterako dira, noski, ohiko leku eta orduan.

ALEGIA ▶ PILOTA

Txapelketako azken finalerdiak, gaur

XVI. Joxean Tolosa Txapelketako finalerdi batzuk atzo jokatu baziren, gaur dira gainerakoak, 22:00etatik aurrera. Horrela, gazteen mailako bi jokatu dituzte: Iraola eta Larrañagaren artekoa bata, Gorrotxategi eta Elurberen artekoa, bestea. Nagusiek jokatu dute jaialdiko hirugarren partida: Arrutik eta Olazabalek.

TOLOSA ▶

Usakume tiraketa Martin-Txiki zelaian, gaur

11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara egingen dute gaur usakume tiraketa, Martin-Txiki zelaian, Tolosako Ehiztari Elkarteak antolatuta. Izan ematea egoitzan bertan egin behar da, 40 euro ordainduz. Probako arauak Gipuzkoako Federazioarenak berak izanen dira, parte hartzeko jarri duten baldintza bakar modura, hiru usakume botatzea izanez.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Genero indarkeria salatuz, deialdia

Atzo, Miarrizten, ustez bere mutil-lagun ohiak erahilik azaldu zen beste emakume baten heriotza salatuz asmoz, kontzentrazio deialdia egin du etzirako Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxarako plataformak. Genero indarkeriaren aurka, «Emakumearen aurkako indarkeriari aurre egin!» leloarekin egingen dute elkarretaratzea, Trianguloa, 19:30ean.

TOLOSA ▶ KULTURA

Haur liburutegia itxita, urri hasiera arte

Oraindaino Kultur Etxeko lehen solairuan izan den Haur Liburutegitik jakitera eman dutenez, urri hasiera arte itxita egonen da, hain zuzen ere kokapen berrian, Errotan, irekitzen duten arte. Bide batez, liburutegi honen erabiltzaileei maileguan hartutako materialak Kultur Etxeko bulegora itzultzeko eskaera egin diete.

ZIZURKIL ▶

Errausketaren aurkako giza katearako deia

Zizurkilgo Errausketaren Aurkako Herri Plataformak, etzi Donostian egingen duten giza kateara joateko deia egin du. Giza katea Alderdi Ederren egingen dute, «hondartzara jaisteko lehenengo maldan», 11:00etan. Bertara «elkarrekin abiatuko» omen dira Norteko Estazioetik edota Antiguako tuneletik 10:30ean. «Alternatibak daudela», Errausketarik ez/izanen dituzte lelo.

IBARRA ▶ KULTURA

‘Bertakoa ezagutzeko’, hilaren 18an

Hauspoa elkarteak antolatu du, «bertakoa indartu eta ezagutarazteko»



laz bezala, aurtan ere izango dira abereak azokan. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren igandean, hilaren 18an, izango da ikusgai Ibarrran Bertakoa ezagutzeko! azoka. Hauspoa elkarteak antolatzen duen hitzorduak seigarren urtea beteko du aurtan, eta ohikoa den bezala bertako produktuak jendeari ezagutaraztea izango du xede.

Ibarrrako elkarte, talde, nahiz bertako herritarrez osatua dagoen elkarte honek «herriak duen nortasuna eta izaera indartzea, jendeari ezagutaraztea eta herriaren sena sustatzea» du helburu.

Azokan ikusgai

Ibarrran tradizionalki oinarritutakoak izan diren, eta oraindik ere oso garrantzitsua diren nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza bezalako lanbideak eta hauekin lotutako beste hainbat jarduerak eta ohitura ezagutarazi eta bultzatzen dituzte azokak. Bertako baserritarrek barazkiak nahiz abereak ekarriko dituzte, eta artisauek euren lanak azalduko dituzte jendaurrean. 50 postutan zabaldua ikusi ahal izango dira barazkiak eta artisaulanak Euskal Herria kalean, eta abereak, berriz, Beko-bide plazan izango dira —12 baserrik hartuko dute parte—. Egun horre-

tan egingo da ere Eskualdeko IV. Ezti Lehiaketa.

Urtetik urtera hainbat ekitaldi antolatzen dituzte egun bereziko, eta aurtengoak berezitasun bezala dantza izango du. Ibarrrako Alurr dantza taldeak Ezpeletakoa gonbidatu du; egun horretan kalejiran ariko dira goizean, eta eguerdian dantza saio berezia eskainiko dute. Dantzarietz gain kalea girotzen izango dira trikitalariak, eta taloa eta sagardoak dastatzeko aukera izango da.

Hau guztia datorren igandean izango da, 10:00etatik 14:00etara. Halaber, guztia posible izateko 50 laguneko lan taldea hasiko da 06:00ak aldean lanean dena behar bezala irreteteko, eta azoka amaitzean ere guztia zegoen bezala uzteko lan egingo dute. Hori dela eta, antolatzaileek herriko jendearen borondatea eta lana egiteko gogoia azpimarratu eta eskertu nahi izan dute.

Bestetik, kalea itxita izango da, eta ezin izango da aparkatu azoka gunean.

USATEGIAN ENKANTEAN 2.005

ARESOKO UDALA (NAFARROA) Tel.: 948 510327 - Faxa: 948 510710	
1. enkantea:	Larunbata, irailaren 17an 19:00etan
2. enkantea:	Larunbata, irailaren 24an 19:00etan

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 10a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Adana, Abitur, Alege, Alca, Alzo, Ametzola, Anorta, Araso, Arcaño, Balamán, Belduntza, Berastegi, Berrobi, Etxauri, Herrialde, Iturriz, Iruña, Labarra, Lizartza, Oñativia, Oñeta, Tolosa, Villabona, Zizaki, besterik: Leitzaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

AZOKA

Villabona. Elikagaien X. Azoka Berezia. 09:00etatik 14:00etara, Errebote plazan. Irrintzi elkarteak antolatuta.

DEIALDIAK

Ibarra. Izaskun izena dutenen arteko bazkaria, hilaren 18an. Izena eman nahi duenak Izaskungo Izaskun jatebaxera edo 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu behar du (goizez), hilaren 15a baino lehen.

Tolosa. Usakume tiraketa. 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara, Martin-Txiki zelaian.

Tolosa. Iturriza jubilatutako elkarteak irteera antolatuta du San Migelera hilaren 29an. Izen-ematea, elkarteak.

Tolosa. Irazki Tolosaldeko elkarte kulturantzak hilaren 24an ekingo die euskara klaseei. Haurrentzat eta helduentzat izango dira eskolak. Izena eman nahi duenak 678 63 83 94 telefono zenbakira deitu behar du.

Villabona. Aizkardi Mendi Elkarteak Pirinioetara irteera antolatuta du hilaren 17 eta 18rako. Izena emateko deitu 943 69 44 58 telefonora edo elkartearen egoitzara azaldu, ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Mertxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

Tolosa. Rosa Maria Ruizen margolanak ikusgai daude egunotan Sorron enmarkazio dendan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Ollareaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Goiko irratia (107 FM)

13:00. Gaur hasita eta larunbatero, *Kornera* magazina. Posta elektronikoa: kornera@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Naturaz gozatzuz

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Hondartzan zein mendian, naturaz gozatzeko astia hartu dute gaurko lehiakideek beren opor egunetan



'EL DIENTE DE DIE' ▶

Ainhara Apeztexea.

Mendia aukeratu du oporretarako Ainhara Apeztexea, eta Alpeetako irudi hau bidali digu: «Kaixo, argazki hau bidaltzen dizuet nire opor txikiak toki politean igaro ditudalako. Mendi izugarriak ikusi ditut Alpeetan, Die izeneko herriaren ingurukoak; argazkian azaltzen dena El diente de Die bezala ezagutzen da».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Izaro Gabirondo (Alegia).
Gaur 9 urte.
Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Izaro Etxaniz Gorostidi (Tolosa).
Gaur 8 urte. Zorionak eta muuu bat Belateko sorginari, ebekoen partez.



URTE ASKOAN
Lierni Arozena Zubizarreta (Ibarra). Gaur 4 urte. Zorionak aitabato eta amatoren partetik. Muu handi bat.



URTE ASKOAN
Kakun (Tolosa). Ai, ama! Ez dakizu nola pasatzen den denbora... 43 urte.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzek, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!